


Euskal gazteen % 17,3k boluntario-lanak egiten ditu gaur egun

Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Euskadiko gazteek boluntario-lanetan parte hartzeari buruzko datuak aurkezten ditu Gazteen Euskal Behatokiak.




Euskadiko gazteen % 17,3k dio gaur egun boluntario-lanak egiten dituela, intentsitatea edozein izanda ere: % 5,7k boluntario-lanak astero egiten ditu, beste % 4,9k hilean behin edo batzuetan, % 4,1ek urtean zehar baina hilekoa baino maiztasun gutxiagorekin eta gainontzeko % 2,3 udan bakarrik.



Nesken artean zabalduago dago boluntariotza mutilen artean baino, maiztasun guztiak kontuan hartuta (% 20,1 eta % 14,5, hurrenez hurren). Erdiko adin-taldeko gazteak (20 eta 24 urte artekoak, alegia) dira boluntariotzan gehien aritzen direnak (% 20,0). Araban (% 20,5) eta Gipuzkoan (% 19,1) zertxobait zabalduago dago boluntariotza Bizkaian baino (% 15,2). Era berean, boluntarioek presentzia handiagoa dute goi-mailako ikasketak dituztenen artean (% 19,3), askoz jota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztenen artean baino (% 12,7).

Alabaina, boluntario-lanak egin edo ez egiteko orduan eragin handiena duten aldagaiak gurasoen esperientzia eta elkarreetako kide izatea dira, dudarik gabe. Boluntario-lanak egiten dituzten edo zituzten gurasoen seme-alaben % 25,7k egiten ditu boluntario-lanak, boluntariotzan ibili ez diren gurasoen seme-alaben %11,8ren aldean. Era berean, asoziatutako gazteen artean boluntariotzan ibiltzen direnen portzentajea % 24,1ekoa bada ere, asoziatu gabeko gazteen artean % 8,1ekoa baino ez da.



Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketa batetik atera dira. Ikerketa 2015ean burutu da eta bere aztergaia gazteen parte-hartze soziala izan da. Bertan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gaztek baino gehiagok inkesta batean emandako erantzunak aztertzen dira. Inkesta hori Gazteen Euskal Behatokiak eta Euskadiko Gazteen Kontseiluak elkarlanean diseinatu dute.

Ikerketaren [emaitza nagusien aurrerapena](#) Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian kontsulta daiteke, [Ikerketak eta Argitalpenak](#) izeneko atalean, hain zuzen ere. Ikerketa osoa urtearen bukaeran egongo da eskuragarri.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

